

# IZURRI GORRIMINA

*JACK LONDON*

*Moldapena eta lan orriak*

*AGURTZANE DUCE ZUBILLAGA*

DESCLÉE DE BROUWER

## SARRERA

Uste izaten da idazleak ekintzatik urrun egoten direla eta idaztea ez dela izateko modu bat, batzuek lekuak, egoerak eta fikziozko pertsonaiak asmatzeko duten trebetasuna baizik. Baina badaude idazleak benetako ekintza-gizonak direnak eta, Hemingwayk, Fenimore Cooperrek, Conan Doylek eta beste askok bezala beraien bizi-modua nobelak idazteko duten trebetasunaz konbinatzen jakin dutenak. Haien artean, bere abentura pertsonalak eta asmatzen zituen pertsonaienak hobekien konbinatzen jakin duen idazlea Jack London izan da.

1876an San Franciscon jaio zen. Bere amak gurasoen etxetik ihes egin zuen eta bere aitak, astrologo famatua izan zenak, ez zuen inoiz semetzat aitortu. Berandua-go, bere ama gizon alargun batekin ezkondu zen eta gizon horrengandik hartu zuen Jack Londonek bere abizena. Oaklanden kokatu ziren. Han zorigaitzeko haurtzaroa izan zuen, noizbehinkako lanak, neke ekonomikoak eta familiaren tratu txarrak zirela eta. Txiki-txikitatik aritu zen aurkitzen zuen

edozein lanetan eta ahal zuen guztia irakurtzen zuen hamalau urte bete arte. Orduan lan egiteari utzi zion eta legez kanpoko isileko arrantzari ekin zion, nahiz eta geroago bera arrantzale-mota horren eta San Franciscoko badian ugari ziren bidelapurren jazarle izan zen. Bizimodu horretan portuko giroko mota guztietako pertsona marjinatu eta delitugileak ezagutu zituen eta horiek dira gero bere liburuetan isladatuko direnak.

8 Alaskan urreketari ibili zen, gosea, eskaletasuna eta kartzela ezagutu zituen. Eta bere lehenengo ipuinen argitalpenekin irabazi zuen diruaz abentura berriak bizi izan zituen: foka-ehiztari, urreketari, 1904ko errusiar eta txinatarren arteko gudan korrespontsal, baserritar, ekintzaile politiko... 40 urterekin gaixotasunak eta alkohol eta drogen gehiegikeriak heriotzara eramane zuten arte.

17 urtez ekin zion literaturari eta denbora horretan 50 nobela eta ipuin labur baino gehiago argitaratu zituen. Bere idazlanen artean ezagunenak: *The Call of the Wild* (*Oihanaren deia*), *White Fang* (*Hagin zuria*), *The Sea-Wolf* (*Itsas otsoa*), *Martin Eden*... Bizitzaren aldeko borrokak, bere

ipuin baten izenburua denak, bere idazlan gehienen ideia nagusia laburtzen du, guztietan egoera penagarrian dauden pertsonaia batzuen bidez zibilizazioarekiko kritika eta izaera autobiografikoa azaltzen baitira.

Londonek bere nobelarik ezagunenetakoa protagonistak diren pirata, arlote eta abenturazaleengandik urruti samar dagoen Izurri gorrimina bezalako idazlan-mota utzi zigun Etorkizuneko Istorioak deritzon kontaketa labur-bilduma batean argitaratua. Asmatutako etorkizun batean giroturiko kronika edo memoria gisa kontatzen dituen istorioak dira, eta bertan bere kezka moral eta politikoak azaltzen dira.

Istorio honek 2073. urtera eramaten gaitu. 2000. urtean izurri ikaragarri batek, Izurri gorriminak, hain zuzen ere, 8000 milioi biztanle baino gehiago zituen hiri bat suntsitu zuen. Istorio honetan zehar agure zarpail batek bere ilobei kontatuko die nolakoa zen mundua hori gertatu baino lehen. Gutxi batzuek bakarrik lortu zuten handik bizirik ateratzea eta orain tribu txikietan sakabanaturik bizi dira desagertu den zibilizazio bat berreraiki nahian. Haietariko bat bera da, narratzailea, zeina, garai hartan, James Howard Smith, uniber-

tsitateko irakaslea zen. Bere helburu bakarra da Edwin, Hare-Lip eta Hoo-Hoo-k, erdi basati eta analfabetoak diren hiru mutil horiek, geroko belaunaldiei arbasoen izpiritu-ondarea adierazten jakitea.

Doinu katastrofista honek parabola didaktikoa bihurtzen du istorio hau, eta horretaz baliatzen da idazlea bera bizi izan zen zuzengabekeriaz beteriko gizarte industrializatuari kritika soziala egiteko.

Seve Calleja

# IZURRI GORRIMINA

## I

Bidea, garai batean trenbidearen **lubeta** izandakoan zehar zihoan, baina urte asko ziren handik trenik igarotzen ez zela. Oihanak, uhin berde baten gisa alboetako maldak hartuak zituen, zuhaitz eta sasiz beteta zeuden. Bideska hark, nondik basapiztiak baka-rrik igarotzen ziren, giza gorputz baten zabalera zeukan. Tarteka lurrean azaltzen ziren **herdoil-zatiek**, bertan errail eta trabesak bazeudela gogorazten zuten. Juntura batean hamar **hazbeteko** zuhaitza hazi zen, burdinarren muturra altxatuz, eta berarekin batera habea, burdin honi torloju baten bidez lotuta zegoena, harea eta orbelez berehala bete zen zulo bat utziz; eta orain **erauzi** eta pipiatuta zegoen enborrak itxura berezia zeukan.

11



**Lubeta:** “Terraplén”.

**Herdoil-zati:** Uger; “herrumbre”.

**Hazbete:** Hatz; “pulgada”.

**Erauzi:** Botaerazi, jaurti.

Denbora asko igaro bazen ere, trenbidea errail bakarrekoa izana zela argi zegoen.

Bide honetatik agure eta mutiko bat zihoa-zen. Astiro zebiltzan, zaharra zen eta epilep-  
tikoan mugimendu dardaratiak zituen agurea makila bati bermatuz ibiltzen baitzen. Burua eguzkiaren izpietatik babesteko ahuntz-lar-  
rruzko txano latz bat zeraman jantzita. Txa-  
noaren azpitik **ile-xerlo** zuri eta zikin bat ikus zitekeen. Osto handi batez egindako bisera batek begiak babesten zizkion, eta horren azpitik arreta handiz begiratzen zuen agureak non jartzen zituen hankak. Bizarra, zuri-zuria izango zena, baina ilea bezain zikin eta kora-  
pilatsu zegoena, ia-ia gerriraino heltzen zi-  
tzaion. Sorbaldak eta bularra ahuntz-larruzko txamarra guztiz hondatu batez bakarrik estal-  
tzen zituen. Beso eta hanka mehe eta **zimelek** oso zaharra zela adierazten zuten. Beltzezka eta orbain eta harramazkaz beteak zeuden, elementuen eraginpean urte asko zeramatzatela adierazi nahiko balute bezala.

12



**Ile-xerlo:** Adats, motots; “mechón”.

**Zimel:** Argal.